

### 3. Ekologiazko armoniak euskeran

*Felix Zubiaga Legarreta*



#### 3.1. Nor

##### a) Ikasketak / Estudios / Studies

- Filosofia eta Erromanikar Letretan Lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean, Unamuno y las lenguas peninsulares (1973) tesiarekin.
- Doktorautza Ikasketak (1996-1998) *Vascuence y mitoanálisis* lana egin zuen

##### b) Argitalpenak / Publicaciones / Publications

- Honezkero, liburu hauek argitaratu ditu: *Vascuence y mitoanálisis / Euskararen ereduak / Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan / Euskal mito-erritoak eta euskara / Apellidos y nobleza / La onomástica, oído de la prehistoria o el vascoeuropeísmo / Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence./ Antiguo Testamento del vascuence / Euskararen jakinduria / Euskara mito bizia / Origen y desarrollo del lenguaje (según el vascuence) / Zuzentza eta eskubidea euskararen oroitzan / Euskara bere baitan (psikoaztertuz) / Vascuence, inconsciente colectivo / Amarekin topo / Dic. Etimológico según el vascuence Hitzen jatorria / Ama Jainkoa / Ama eskolako hizkuntza orokorra*
- Literatura arloan ipuin, antzerki, eleberri eta poesia lanak egin ditu, zenbait sari jasoz: *Errosarioren kuzkuak, Agora*, (Donostia Saria), *Kalean andre, Zure argi kliskak* (Arrese Beitia Saria, 1986) eta *Oi Emmanuel!* (Lizardi Saria 1991)

##### c) Experience / Experiencia / Eskarmentua

- Erretiroa hartu zuenetik hizkuntza arloko ikerketa lanekin jarraitzen du
- Euskerari eman dizkio bere maisutzako urterik gehienak Lauaxeta Ikastolan
- Urte asko euskararen ikerketan ekiten dio Eleiker Bildumaren inguru *Vascuence y mitoanálisis* jarraipenean, metodologiaz etxeko etnografia, toponimia eta euskera bera Antzinako Sortalde Hurbileko mitografiarekin konparatzen dituela.

##### d) Harremanetarako / Contacto / Contac

- fzubiaga[abildua]orue.biz

## 3.2. Laburpena / Resumen / Abstrac

### a) Laburpena. Ekologiazko armoniak euskeran

---

Euskerak honela aztertzen du *armonia* hitza: *ar+emon* aurkitzen ditugu konposizioan eta halako esakeran agertzen da: "artuak emanaz du zapore", "*arremon* onean bizi dira", "*armonin* pasa jaialdian", etab. Ekonomia, ekologia, eta gizarteko arazoan edo genero munduan sartzen gaitu, bada handik asten dira merkatuko legeak ere: *hartu* eta *emon* (h- edo hatxe barik) *Ar+eman* konposagaiak aztertuz, *arra+emea*, sexu bien artekoen harremana aipatzen da, ez eredu bezala, ezpabere aurkakoen hurbiltzea zaila izaten delako baino eta erritual berezia eskatzen maitaketan.

Musikan ere, armoniak eta desarmoniak adikortasun zoliaz gainditzen dira. Aurkakoen *armonia* apurtzen denean, norberia eta indarkeria nagusitzen dira, ostera, edo beste era batera esanda, bortxakeria edo matxismoa garatzen dira. Artean artea ...

Matxismoa emetasunaren aurkako jarrera itsua da, bere tokitik erauzi egiten du emakumearen duintasuna, armonia hausten du, *amaren eskola* ukatzeraino, eta giza biologia den amaren baratza lardaskatzeraino. Gauzak horrela, aldameneko zientziei galdetzen diegu, ea ezer argitzen diguten arazo honetan: ekologiak, biologiak, psikologiak, psikiatriak, soziologiak, gramatikak, etab. zer esango... Eta, elkarren kontra altxatu barik, armonikoki bateratuko dira erantzunean.

### b) Resumen. Armónicas ecológicas en el euskera

---

El euskera analiza así la palabra armonía/armonía: en la composición encontramos "har" y "emon" y tiene su constancia en las fórmulas "artuak emanaz du zapore" "lo recogido tiene sabor por lo que se da", "arremon onean bizi dira" "viven en un perfecto yo te doy, tu me das (armonía)", "armonin pasa jaialdian" "pasad la fiesta en armonía", etc. Nos introduce en la economía, la ecología y el conflicto social o el mundo del género, pues de ahí comienzan también las leyes de mercado, tomar y dar (con h o sin h en euskera). Cuando analizamos "ar + eman" se nombra la relación de ambos sexos, macho "har" y hembra "eme", no como modelo sino como aproximación de dificultad de lo contrario, pidiendo un especial rito de amor.

En la música también las armónicas y las desarmonías, se sobreponen con sagaz amabilidad. Cuando se rompe la armonía de los contrarios, se imponen el egoísmo y la violencia, o dicho de otro modo, se desarrollan la violencia y el machismo. El arte en arte (juego de palabras en euskera de difícil traducción).

El machismo es la ciega actitud frente a la feminidad, expulsa de su lugar la dignidad de la mujer, rompe la armonía, hasta el punto de ningunear la escuela materna y de echar a perder el huerto materno. Estando así las cosas, preguntamos a las vecinas ciencias, a ver si algo nos esclarecen en este embrollo: ¿qué nos tienen que decir la ecología, la biología, la psicología, la psiquiatría, la sociología, la gramática...? Y, sin alzarse uno contra el otro, se unirán armónicamente en la respuesta.

### c) Abstrac. Harmonies of Ecology in basque language

---

Euskera composes the harmony based on "ar + emon" (receive and give) and this is projected in sayings and said as "It gives pleasure to give received" or "live in a good reception and delivery" or "I have the party in a give and take! ", Etc.

The Economy introduces us to the world of ecology and social problems and from there comes the commercial laws: Receive and give and if it is worked a little, the form "ar + eman", it is "arra + emea" that refers - if not as a trully norm - to the relations of both sexes, if as an expression of the necessity of rituals for the loving rapprochement between the sexes.

Also the music, harmony and disharmony are resolved with attention. On the contrary, when shared harmony is broken down, personalism and violence take over. Put another way, violence and machismo become winners. In between, the medium.

Machismo is a blind behavior against women, which strips them of their dignity, breaking the harmony and denying the maternal school and confusing the fact of human biology that leaves the mother's garden.

So things, if we ask the nearby sciences, Ecology, Biology, Psychology, Psychology, Sociology, Grammar and others to see that we are enlightened in this problem ... They will say us. Without standing up against all harmoniously they will be unite in the answer.

### 3.3. Txostena / Communication / Ponencia

#### b) MAITE forma armonikoa da eta DAMA desorekaduna

---

Hitzaren erritua jarraituz, Ama+Ata > MA.AT dator koptoz eta MAITE/MAIDI euskeraz, AMADA, Ama Jainkoaren izenetan. Arketipoak itzulikatuz, TEMA dugu ostera, hebreoek ADAM ta babiloniarrek DAMA egiten dutena; grekoek TEMIS deritze juzoko (zuzentasuneko) jainkosari. Horrela, AMA+ATA arketipoak tokitik etenaz, amaren duintasuna baztertzen du eta, *amaren eskola* ukatzearen, haren hizkuntza ere atakatu egiten du, hotz, gauzea ez baita jartzen, "Ama ala Aita da lehenengo?" eztabaidatzen da ta jarraian matxismoz erabagitzen: aita da biziemaile esateraino.

Umea jaiotzean, ba dakigu nor den ama, baina ez ausaz, aita zein den. Orduan *aitatzen* da *aita*: nor da aita? Euskera lekuko, AMATU "amatasuna osotu" da lehenengo eta AITATU, "aitaz galdetu", hurrengo. (Abizenen ordena, adibidez, eskribarien arteko matxismo halakoz, lehentasun arruntaren aurka doa).

#### c) Kosmoseko armonia eta nortasunak

---

Gure zentzunek ohartzen duten eratarra eta eskola bidez, galde genezake ea zerua ala eguzkia den lehenago. Posible ote den eguzkia zeru espazio barik, edo zein dagoen biotatik gorago. Bestalde, hizkuntza arketipoen teorian, ba al dago kosmosean agertzen den armoniarik?...



Zeintzuk dira orduan lurreko gure etxe hau gizakiontzat toki bizigarri egiten duten elementuak? Ura, sua, airea, eta lurra hain zuzen. Elementuon orekari esker, armonian bizi gara, horien parte izan eta horien mahaitik edan eta jan ezik, ez dugu bizi ahal izaterik. Honetan oinarritzen da "entropiaren hastapena" ere. Zeruko uña ala eguzkiaren sua, egurats airea ala lurreko lohia zein diren lehenago biologia mailan, berdin aberedi edo landaretzan.

Gramatikan gizakion nortasunak edo "pertsonak" aurkezten ditugu. Euskararen senean, NO eta TO dagerz pertsona nabarietak: NO "emazte", TO "senar" adierazteko, "zeru" eta "eguzki" sinbolotzat hartuta: ANU/INU>"uin", NI datorrena lehen eta UTU>TU> "su" >ZU>YI>HI ahoskatzen dena bigarren, ERRA>ERA>"aire" elementua hirugarren, eta ILU>EL/ELLA "loi, lur" laugarren.

Beraz, gramatikazko nortasunak ere gizadiko elementuekin egoki armonizatzen dira, hotz, gramatikako pertsonak bat datoz kosmoseko lau arketipoekin. Lau arketipook, halaber, jainko izentzat hartzen dira: AN, UTU, ERRA, ILU gure zentzunek egiatik hara ohartzen dituenak eta eurekin hizketatzeko, otoitz egiteko (oración gramatical) gizakiak aurkezten dituen bere ordezkariak: BAITA>BAT "nor-bera", KA "gaia">GU eta ASA "izpiritua". Lau, jainkozko eta hiru, gizatasunezko: zazpi arketipo. Elementuok Sumerian eta Egipton ere agertzen dira, euskeran bezala.

Gizakia, ene BA izatetik, jainko izan nahiez, BAT>PTA aldarrikatu zuan Menfisko eskolan, Egipton, eta euskerak dinonez, "Jainkoa Bat eta bera nahikoa", "Batek ba daki" aitortu izan ditu eta numeraletan ANU>ONA barik, BAT jarri zuan aita-agintez. KA, berez gaia gaitasuna denetik, >GU, EGO arrotzera bultzatu zuan matxismoak eta GEB, egiptiar forma, GAIA "Amalur" aurreratu grekoek eta EGO latinoek. EGO>YO dator. NI ala EGO>YO forma, beraz? Hor dager zeru-lurren arteko iraultza; dena azpikoz gora jarri asmoa. Gramatikan ere, kosmoseko *ama eskola* irauldu gura izan zan: nortasunak nastatu nahia, lehen postuen irrikan.

Gramatikak, hala ere, lehen oreka gogaraziz, eztabaidaren historia erakusten digu. Zergaitik dino ezpabere, Nietzschek, Gramatika suntsitu ezik, "ez dago Jainko ideia giza adimenetik aienatzerik"? Eta zertan Lacan kideak "gramatikak diraueno, Jainko ideia ba darrai, NI eta ZU arteko egiaren lekuko bezala?". Beraz, NI eta ZU>YI>HI artean ERA>BERA>Vera "egia" erabagitzen duena dagoelako ziur. NO ala TO/ Ni ala ZU, beraz, zein den lehenago galde edo erabagi genezake...

#### **d) Ekologia eta ekofeminismoa**

Bizi dugun izadi-kosmos unea, toki miña eta minbera da. Gauzen oreka jarraitu ezik, elementuon dendua (oreka) galtzen da: **ura, sua, airea, lurra** (jo, jainko arketipoak dira). Ekologiak bizi dugun etxea zaintzen erakusten digu. Amaren esku *artzak baratetik eskaratzera*, barazkiak uztatzen ditu etxekeen elikagarri, aita ardiak zaintzen ditu ekonomia bererako. Lurraren despentsak neurriak ditu. Ekonomiak izadiaren erritmo bera ezpadaroa, handiz urkatzen da... Beraz, apaltasunez, hazia erein, amaren ortuan, lur onaz hornitu, ureztatu, eguzkitara eman, ernetzen deneko, aireratu eta uztaroan, emaitzez gozatu ahal izateko. OR/ORTZI/ORUS, ATOR (Erra alabaren seme) formatik >orutu>ortu, etxeke *ortuaren* ahaleginak.

Emakumea izadiak eta haren biologiaz urrago sentitzen da, gizonezkoa baño, sagarrondoak beretik sagarrak bezala, bere soinetik fruitua ematen duelako. Hagatik errespetu gehiago daukatso izadiari. Nork edo zerk daroa biologiaren erritmoa, aipatu laukoteak (urak, suak, aireak eta lurrak) ezpada? Ama eskolako hizkuntzak "errito" deritzogun zehaztasun beraz

txertatzen ditu elkarrekin jainkozko arketipo eta giza arketipoak. Zer dela-eta? Hitzak adierazten duena Izadiak zehatz gauzatu ahal dezan, eta harago, hitz erratuaren gaitz-ulertzak hondamendira lerratu ez dezan. Izan ere, hizkuntza gizakiak jainkoekin eta gizakiak gizartean elkar ulertzeko asmatua izan da. Harago, ama hizkuntzan hitz egitea, otoitz egitea da. Alderantziz *biraua* da, hotz, otoitza *biratu* "kontra otoitz" bihurtzea da.

### e) Matxismoaren sinboloa, subea (sugea), Baradisuan

---

Erljio denetan egon dagoz mitoak, hori bai-da haserako jakinduria: hala agertzen dira munduaren sorkuntza, landaretzaren sorrera eta abereena, azkenean gizakiaren sorkuntza: "Jainkoak *gau+uts* zen *kaostik* (Has. 1.1.) dena sortu zuan": zeru-lurrak eta lurrekoak. "Azkenean izakia sortu zuan bere irudira, emakume eta gizakume eta Baradisuan jarri zituan (Has 1,26-27), baratza zaindu zezaten, eta jakinduriaren sagarretik ez jateko aginduaz, gaitzik izan ez zezaten" (Has 2,26-27).

Baratza zaintzeak ardura berezia eskatzen du, jakinduriaren sagarretik ez jateko aginduak, hezia jartzen zien lehen gurasoei. Nortzuk eta zertaz arduratzen dira baratz lanetan? Senar-emazteek hoberako bakoitzari zer zegokion eztabaidatzen zuten onezkoan. Ekologia bidean zen eta hara, ustekabean, Subea Baradisuan!

Anartean *SU+BE* (<Utu>*su+be* "beko sua", *Su.aP* sumerieraz) baitako subea lez, dager, NO eta TO bikotearen artean, ziria sartzen eta *BERA* nortasunak esana ukatzen. Nor da, beraz, jaun eta jabe? Noren esana egin behar da? Gramatikan ikusi dugun nortasunen iraultza bera gertatzen de Baradisuko eresian, askatasun irrikak duen, zorionaren izenean. Askatasuna al da zorion hutsa? Ekologian denak balio al du? Goi-beak irauldu ote daitezke? Babeleko handitasunak ze iraultza ekarri zuen? Nork erail zuan Tiamat? *Ama eskolako* hizkuntza non baztertu..?



### e) Zientzia eta armonia

---

Ostarkuan zazpi margo bereizten dira eta Musikak zazpi nota punpatzen ditu eta zazpi noten gorabeherekin armonia guztiak konpontzen eta margolariek zazpi margoekin dena marrazten dute polikromiaz. Hizkuntzak ere zazpi kontsonante ditu eta arketipoen hotz edo izenen jokoaz hizkuntza guztiei abotza prestatzen die.

Zientziak azal dezake ostarkuaren zazpi koloreen kauta. Ama eskolak izadiko argibidetik ikasi zuen hizkuntzako zazpi arketipoak lantzen. Etnografiak astearen zazpi egunak azaltzen, politikak ausaz, "Zazpirak bat" lemaren arrazoia, dotrinak "zazpi sakramentuena" eta euskal folkloreak, zazpi jostunek jositako amaren gona gorriarena, Ama eskola begien aurreko ikuskizunez baliatzen zelako/delako.

Psikologiak erakusten du (hala Jung-ek) arketipoak zer diren, hotz, giza ohargabeen

ezkutatzen diren eredu zaharrak: ama, aita, heroia, antiheroia, etab. (Autore berak nor bakoitzarengan halako armoniak hornituz, gizonezkoari *anima* baita opa dio eta emakumezkoari *animus* baita). Sikologiak eta sikiatriak ager dezakete matxismoaren zeinu den SUBE horren nortasun funtsa ere, ea liburu sakratuen idazlari misoginoen amarru hutsa denentz eta ez Jainko inspirazioaren argitan idatzia eta Koen bezalako geologo batek aitortzen digu euskal frikion arrazoiak amaren etxeko berbak sinestagarriak direla eta matxismoaren politikak bakarrik uka ditzaketela, antzinatik amaren eskola galdu asmoa duelako.

Soziologiak erakusten digu gizaki bakoitzaren eskubideak: lana, etxea, bizibidea, etab. eta izadiko ereduetan ikas dezake *egia*, *doitasuna* zer den, *zuzentasun* eredia nondik datorren, *juzoa* (zuzentasuna) ereduz norena den. (Asabek *Utu>doi*, *Utu>sotz* uste zuten amaren eskolatik) Zientziei ere armonikoki ekiditea dagokie erabagietan.

#### **f) Armonien gazi-gozoak eta bizi iraupena**

---

Ekologiaren oharrak direla-ta, ia lurraren iraupenaz arduratzen hasiak gara. Lehenengo gure lantegiko tximiniez eta biribilen gasolina sundaz karbonoz bete genuen kalea eta geuk arnastu behar genuen eguratsa, geure kalterako. Ez dugu garbitu oraindino. Gero zelulosarekin errekak zikindu genituen, ur gardenak ur beltz bihurtuz. Arrainak ito ziren. Garbitzen ahalegintzen gara eta arrainak berriro igo dute. Gure zero ingurunearen atmosfera jaurtitako koheteen txatarraz zikintzen ari da. Eguzkiari errezela jarri nahi ote diogu? Ohar nola gure ekologia zabarraz zikindu dugun jainkozko lau arketipoen nortasuna... Kontuan hartu matxismoaren ekonomiak Diru Jainkoari bakarrik begiratzen diola eta handik urkatzea bilatzen...

Hala ere, lurreko eguratsetik aparte, ez dugu bizi itxaropenik... Antropia hastapenak dioskunez. Demokrazia zintzotik aparte, ez dugu askatasun itxaropenik politikan. Ekologia barik, biologiak pot egiten du, amatasun barik, umerik ezin da umatu, ez jaio, Ama eskola barik, euskerak ere ez du etorkizunik... Elkarren begirameneko armonian bizi beharra dugu. Matxismo subearen zirikatetik ate, Ama ekologiari eta eskolari opa diot agintea eta ohorea gizaldietan. Amen. Ondo izan.